



# ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO  
Tfona.: 943-31 30 30 e-posta: [herrikontseilua@gmail.com](mailto:herrikontseilua@gmail.com)

## HERRI KONTSEILUA BERRITZEKO HAUTESKUNDEAK DATOZ

MAIATZAK 1, HERRI BATZARRA

### **AURKIBIDEA**

Ieltxo kultur elkarteak:  
Zine-jana, igandetako plana /2

Lezkarri Abesbatza /2

Emakume Afaria:  
56 emakume aurten /2

Inauteriak /3

Kixmikoak Gorlizen /3

**Kontu Kontari:**  
Jabier Iraola eta Iñaki Aizpurua  
Herri Kontseiluko kideak /4-6

**Herrian ze berri?:**  
Igelko Gaztiak /7

**Bota Puntua /8**

## Kaixo herrikide!!!

Jakingo duzun bezala, garrantzi handiko aldaketak datoz herrira; izan ere, Igeldoko Herri Kontseilua berritzear da 15 urte eta gero. Horretarako, hauteskundeak egitea aurreikusten da ekainean, baina aurretik, Herri Batzarra izango da maiatzaren 1ean, Herri Kontseilua berritzeko proposamena onartu eta hauteskundeak zehazteko. Hori horrela, Orri Informatiboak IHKko

bi kideri egindako elkarrizketa bildu du ale honetan.

Horrez gain, udaberriarekin batera, herriko talde ezberdinak "loratu" dira; hala nola, Ieltxo kultur elkarte eta Igeldoko Gaztiak. Eta beste batzuk ohi bezala, beren fruitua ematen jarraitu dute; esaterako, Kixmi aisialdi taldeak eta Lezkarri Abesbatzak.

Martxoan egun seinatuak ere izan ditugu eta horiek ere ezin

aipatu gabe utzi: Inauteriak eta Emakume Afaria, hain zuzen.

Martxoan festa izan dugu eta maiatzean izango dugu, Udaberriko Jaiak ez baitu hutsik egingo aurten ere. Maiatzaren 13, 14 eta 15ean izango da. Akelarrea, antzerkia, San Xidro eguna bazkari eta guzti...

Herri txikia gurea, baina bizitasunez handia. Orri Informatiboak ere txiki geratzen ari zaigu! ■

## Zine-jana, igandetako plana

Hurrengo emanaldia maiatzaren 29an izango da helduentzat, eta maiatzaren 27an haurrentzat.

Ieltxo kultur elkarteak zinea eta gastronomia uztartzen dituen bi saio antolatu ditu martxo eta apirilko bi igandetan. Pelikula ikusiz afari merienda egitea izan da asmoa eta inguraturiko jendea gustura gelditu da, elkartetik azaldu dutenez. Eta jakinarazi dute, oraindik probatu ez dutenek azken aukera izango dutela maiatzaren 29an. *Chocolat* pelikula izango da ikusgai eta jateko... bertara azaltzea onena. Haurrentzat berriz ostiral arratsaldetan izaten dira emanaldiak eta maiatzaren 27an izango dute hurrengoa, *Ratatouille* pelikula. Emanaldi horiek kultur etxean dira.



Zine-janez gain, apirilaren 2an barkarrizketa saioa antolatu zuen Ieltxok eta, nahiz eta herriko jende askorik ez hurbildu, saio polita izan zela nabarmendu dute antolatzaileek. ■

## Berako Abesbatza, Igeldon

Berako Abesbatzaren emanaldia izan zen martxoaren 12an Igeldon. Igeldoko Lezkarri Abesbatzak bertan eskainitako emanaldiaren trukean etorri ziren nafarrak. Emanaldiaren ondoren, afari ederraz gozatu zuten bi koruek Din din elkartearen. Guztira, 60 bat lagun elkartu ziren.

Bestalde, Lezkarrik hainbat emanaldi izango ditu ekainera bitarte. Hurrengo Igeldon izango da Udaberriko Jaiaren barruan, ondoren Alegian, eta ekainean Hernanin. ■

## 56 emakume, aurtengo Emakume Afarian

Urtero bezala, Martxoaren 8a, hau da, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko, Emakume Afaria egin zen martxoaren 12an, herriko emakume baserrietarrek antolatuta. Afaria Nicols hoteleko jatetxean izan zen. Guztira 55 emakume bildu ziren eta giro goxo eta lasaian ospatu zuten euren eguna. Afalostean, herriko baserrietako produktuekin osatutako 3 saski eder zozketatu ziren eta Mainer Illaramendik, Arantxa Txintxurretak eta Arratzaingo Ziortzak eraman zituzten aste osorako jakiak. Ondorenean, Dj-ak jarritako musikari esker, dantza eta jai giroa izan zen nazkatu arte. ■







# Giro ederrez mozorrotu zen Igeldo

Ondazarteko Eba Mirentxu, Harkaitzako sevillana, Kamioko Samu, Benta Alegreko hippya, Amezti Garaiokoako boxeolaria, Agitiko zirujanua, Igeldoko meatzariak, Domingueruak... Denen artean giro ederra jarri zuten Igeldon, Inauterietako larunbatean.

Eguerdian plazan elkartu eta herrian zehar giroa zabaltzen ibili ziren trikitixa lagun zutela. Trikitixa eta eguraldia. Hori horrela, berez Din

din elkartearen egitekoak ziren bazkaria elkarte kanpoan egin zuten. Bazkari bikaina egin ondoren, jolasak egin zituzten bildutako gazteetako batzuk. Festak iluntzera arte iraun zuen.

Inauteriak Igeldoko gazteek antolatatu zituzten eta benetan arrakastatsua izan zen arren, festa, gazteei bakarrik mugatu beharrean, herri guztiari zabaldu beharrekoa dela argi dute. ■



## Kixmi Gorkizen, asteburu pasa

Igeldoko haurrak Gorkizera joan ziren asteburu pasa, apirilaren 1, 2 eta 3an Kixmi aisialdi taldearekin. Eskola bukatuta, ostiral arratsaldean abiatu zen autobusa, 24 umerekin.

Asteburuko gaia zirkua zen eta ostiral gauean, Kixmiko begiraleek antzerkia egin zuten. Larunbat goizean, hondartzan zirkoko karpa egin eta bertan, mozorroak prestatu zituzten. Arratsaldean berriz, ginkana moduko bat egin zuten eta kalez kale eta etxez etxe, objektu zehatz batzuk eskatu behar izan zituzten haurrek. Gehien gustatu zitzaizen ekintzetako bat izan



zen. Igandean, eguraldi txarrarekin esnatu ziren igeldotarrak eta aterpetxean aritu ziren jolasean. Arratsaldean motxilak bizkarrean hartu eta Igeldorantz abiatu ziren.

Begiraleek balorazio ona egin dute eta jakinarazi dute, hurrengo urtean, prest egongo lirakeela Euskal Herriko beste txoko batera joateko,

haurrak berriro animatuz gero.

### Txikienezat ere, Inauteriak

Igeldon txikienez ere ospatu zituzten Inauteriak. Kixmik tailerra antolatu zuen ludotekan eta parte hartu zuten haurrek mozorroa egin zuten; bakoitzak berea. Mozorrotu ondoren, musika jarri eta dantzan ibili ziren. ■

Igeldoko Herri Kontseilua, Igeldoko organo gorena dena berritzeko prozesua martxan da. Herriko elkarte, talde eta herritarrekin bilerak egin ondoren, maiatzaren 1ean Herri Batzarra izango da proposamena

onartu eta hauteskundeak antolatze-ko. Orain arteko kideak 15 urtez aritu dira Igeldoren alde lanean. Orri Informatiboa bi kiderekin bildu da, Jabier Iraola eta Iñaki Aizpuruarekin. Bereaiek bizitakori buruz galdetu diegu.

# "Herri Kontseilua ez balitz egongo, Igeldo berez dena, desagertuta egongo zen"

**Herri Kontseilua berritzeaz ari gara hizketan azken aldian herrian, baina nondik sortu zen Herri Kontseilua, eta zertarako?**

**Jabier:** Herri Kontseiluaren aurretik Auzolan zegoen Igeldon. Auzolanen bost komisio zeuden eta komisio bakoitzean ordezkari bana geunden. Hauteskunde bidez osatu zen Auzolan. Eta orain Herri Kontseiluarekin gertatu bezala, denborarekin desitxuratzten hasi zen; gero eta bilera gutxiago egiten ziren, jendea ez zen azaltzen... Planteatu zen zerbait fua-teagoa behar zela.

**Iñaki:** Auzolana usteltzeak, hau da, desagertzeak zerbait berria sortzea ekarri zuen, baina horri gehitu zitzaion baita ere, herriaren deskontentua. Desanexioaren gaia pil pilean zegoen. Herrian sekulako giroa zegoen herriko arazoak zirela eta. Eta bi jarrera ikusten baziren ere, desanexioaren aldekoa bata eta deszentralizazioaren aldekoa bestea, argi zegoen horrela ezin zela segi. Udaletxeak nahi zuena egiten zuen eta zerbait egin behar zen. Eta Herri Kontseiluak jarrera ezberdineko herritarrak biltzeko gaitasuna izan zuen.

**Jabier:** Jendea aspertuta zegoen Udalarekin. Eta hortik etorri zen: "Udaletxeak ez du ezer egiten... guk zerbait egin behar dugu".



Iñaki Aizpurua eta Jabier Iraola.

**Nola osatu zen Herri Kontseilua?**

**Jabier:** Alde batetik, zonaka ordezkariak aukeratu ziren. 6 zonalde bereiztu ziren eta zonalde bakoitzean bizi zen herritar kopuruaren arabera ordezkari kopuru jakin bat zuen. Horrela, 15 kide aukeratu ziren. Bestetik sektore ezberdinetakoko 5 kide zeuden: osteleritza, base-ritarrak, gazteak, jubilatua eta eskola. Guztira 20 kidek osatzen zuten Herri Kontseilua. Makro-estruturura haundi bat osatu zen.

**Ekaineko hauteskundeetan 7**

**kide bakarrik aukeratuko dira. Zergatik erabaki da Herri**

**Kontseiluko antolaketa aldatzea?**

**Iñaki:** 1000 biztanleko herri batean 20 ordezkari izatea, asko da, eta egitura finko bat izatea oso zaila. Berez, idealena da, baina ez da eraginkorra. Krixtoren dinamika eskatzen du eta oso zaila da. 7 ordezkari aukeratzea erabaki da, berez, 1.000 biztanleko Udalerriek hala izaten dituztelako.

**Zergatik ez da lehenago berritu?**

**Iñaki:** 2000 urtean, Herri Kontseilua sortu eta lau urtetara berritzea toka-



“**I. Aizpurua:** Beharra dago. Donostia garen partetik beti arriskuan bizi gara. Lurrak, urbanizazioa dela eta... Baina behar hori norberak sentitu behar du. Herriaren parte sentitu behar du eta herria gustatu behar zaio”

tzen zenean, Donostiako Udalak *Ente Lokar Menor* delakoa proposatu zuen eta hauteskundeak ez egitea. Zenbait urte kontu horregatik pasa dira, baina azken urteetan, guregatik. Indar falta izan da arrazoi nagusia. Herri Kontseilua hain deseginda egonda hauteskundeak prestatzeko indarrak ere ez zegoen.

**Zu Jabier gazte sartu zinen Auzolanean, zu Iñaki, Herri Kontseiluan. Gazteek erreparoz begiratzen diete halako konpromisoei, ardurei, zuek nola bizi izan zenuten?**

**Iñaki:** Ni inkosziente sartu nintzen eta egia esan, niretzako oso erraza izan zen. 20 pertsonen artean gazteena nintzen. Ni han egoten nintzen eta ahal nuena ikasten nuen.

**Jabier:** Garai hartan zegoen dinamika zen. Orduan festetan ere 24 orduz aritzen ginen lanean. Orain bi orduko erreleboak eta egiten dira. Denok denean aritzen ginen. Eta berdin gertatzen zen gauza guztiekin. Gogoia behar da. Lehenengo egunetan galduta egoten zara, baina denborarekin ikasten da.

**Nola zegoen Igeldo garai hartan?**

**Iñaki:** Herria gaizki zegoen: frontoiak ez zuen estalkirik, autobusa 2-3 orduko zegoen eta asteburutan ez zegoen, kultur etxea egin berria zen... Igeldo oso utzia zegoen. Zerbitzu aldetik penagarria zen. Orain ere ez dugu askorik, baina azpiegitura aldetik hobeto gaude.



“**J. Iraola:** Gogoia behar da. Lehenengo egunetan galduta egoten zara, baina denborarekin ikasten da”

**Jabier:** Orain jendeak ez du utzita gauden sentsazio hori.

**Jendeak ez duela sentsazio hori diozu... Eta Herri Kontseiluaren beharra al dago?**

**Iñaki:** Bai, beharra dago. Donostia garen partetik beti arriskuan bizi gara. Lurrak, urbanizazioa dela eta... Kosziente izan behar dugu, Herri Kontseilurik ez balitz egon Igeldo nolakoa izango ote zen, ze ezberdina... Aldatu da, baina askoz gehiago aldatuko zen eta jendea ez da konturatzen.

Babes Ofizialeko Etxeak ez ziren herritarrentzat izango eta gehiago izango ziren. Muntuzabaleko planak aurrera egingo zuen eta orain ez

genuen Muntuzabal dagoen bezala ezagutuko, etxek josita egongo zen...

Jendeak kosziente izan behar du ze garrantzitsua den Herri Kontseilua izatea, bertan parte hartzea eta herriko gauzetan parte hartzea. Herri Kontseilua ez balitz egongo, Igeldo, Igeldo berez dena, desagertuta egongo zen, neurri handi batean behintzat. Baina hori, behar hori, norberak sentitu behar du. Herriaren parte sentitu behar du eta herria gustatu behar zaio.

**Jabier:** Beharrezkoa da, bestela herriarekin nahi dutena egingo digute, hemen ez badago inor egiten dutena salatzeke edo lan egiteko.

**Zer lortu du Igeldok Herri Kontseiluarekin?**

**Iñaki:** Esaterako, eskola zaharra pikutara zijoan eta Herri Kontseiluak lortu zuen eskola txikia mantentzea, eraikin berria eginda, horrek suposatzen duen guztiarekin. Eskola txikiak desgertarazi nahi dituzte eta hemen pribilegiatuak gara.

“ **J. Iraola:** Herri

Kontseiluaren pegetako bat da, gauza asko ez direla ikusten. Gauza batekin agian, denbora asko pasatzen duzu, administrazioako lanagatik eta jendea aspertu egiten da zain ”

Etxebizitzekin berdin. Herrian jendea bizi da Herri Kontseiluak lortu zuelako. Jabierrek atera zuelako paper bat, 80. hamarkada bukatuakoa, Odon zinegotzi zenekoa, eta bertan jartzen zuena, lehenetsuna zutela igeltoarrek bertan eraikitzen ziren etxebizitzetan bizitzeko. Orduko dokumentu horietan oinarritu zen Herri Kontseilua.

**Jabier:** Albistur alkate zeneko dokumentua zen. Bertan biltzen zenez, Albisturrek lurak erosi zituen Igeldon etxeak egiteko eta jartzen zuen lur horietan eraikizten ziren etxeak igeltoarrentzat izango zirela.

#### **Eta zer ez du lortu?**

**Iñaki:** Akats bat izan da zonaldeko harremana galtzea. 2-3 urte ondo funtzionatu zuen, baina gerora desagertu egin zen. Auzolanarekin ere herri lotura askoz ere handiagoa zen eta auzolana desagertzean, harreman zuzena nolabait ez da landu.

Baina bide horretan lorpen handi bat izan da Din din elkarte. Elkar-teak eman diona herri honi da, kohe-sioa. Adin ezberdinekoak elkartzen dira, estilo ezberdinetako jendea...

**Jabier:** Herri Kontseiluaren beste *pega* da, gauza asko ez direla ikusten. Gauza batekin agian, denbora asko pasatzen duzu, administrazio-ko lana dagoelako atzean, eta jendea aspertu egiten da zain. Ez du ikusten ezer egin denik.

**Iñaki:** Auzolanarekin emaitzak askoz ere azkarrago ikusten ziren. Dena dela, kontuan izan behar da urte hauetan gai oso potoloak tokatu zaizkiola Herri Kontseiluari.



#### **Orain, nolako Herri Kontseilua behar du Igeldok, zuen ustez?**

**Iñaki:** Indarra gazteen aldetik etorri behar du. Jendea dago urte askotan gauza pila bat egin duena eta aldaketa bat behar du. Erreleboa. Eta aldaketa horrek gazteengandik etorri behar du. Ez du esan nahi besteek desagertu egin behar dutenik, baina argi dago honek aurrera egiteko gogoa eta indarra duen jendea behar duela. Iniziatiba behar da. Gazteez aparte jende gehiago animatzen bada askoz hobeto, baina indar hori, gazteek daukate, normalean. Gazteak zentzu zabalean hartuta.

**Jabier:** Jende berria behar da, batez ere, ideiekin eta ilusioarekin.

#### **Ekaineko hauteskundeetan parte hartzea zergatik da garrantzitsua?**

**Iñaki:** Herri Kontseilua Igeldoko organo gorena da eta erreferentzia izan behar du, bai herrian bertan eta baita herritik kanpo ere. Eta herritarren parte hartzea gero eta handiagoa izan, errekonozimendua gero eta handiagoa izango da. Hori izango da Herri Kontseilua legitimo bihurtuko duen indarra eta lanerako izango duen babesa. ■

#### **Hurrengo pausua: Herri Batzarra, maiatzaren 1ean**

Herri Kontseilua berritzeko, ekainean hauteskundeak egitea aurreikusten da eta horretarako, hurrengo pausua Herri Batzarra izango da. Hori, maiatzaren 1ean izango da, **11:30etan kultur etxean**. Bertan, Herri Kontseilua berritzeko proposamena eztabaidatu eta onartuko da. Proposamena onartuta, Herri Kontseilua berritzeko hauteskundeak egiteko data finkatuko da. Herri Batzarrek, hauteskunde prozesua bideratzeko, Hauteskunde Batzordea sortuko du eta batzorde hori osatuko duten pertsonak izendatuko ditu. Horrez gain, hauteskunde-mahaia nola osatuko den zehaztuko du eta erabaki horien akta momentuan jaso eta onartuko da. Bertaraturako guztiak sinatuko dute.

Gaiak duen garrantzia ikusita, oso garrantzitsua da ahalik eta herritar gehien azaltzea Herri Batzarrera.

#### **- Herri Batzarren ondoren, nola egingo dira hauteskundeak?**

Proposamena ondartu ondoren, epe bat irekiko da hautagaiak aurkeztu edo proposatzeko. Proposatutako izen guztiakin behin behineko zerrenda osatu eta publiko egingo da (hautagaiak izena zerrendatik erretiratzeko aukera izango du). Behin betiko zerrenda osatuta, hauteskunde-mahaia osatu eta hauteskundeak egingo dira. Igeldon erroldatutako 18 urtetik gorako herritarrek izango dute botoa emateko eskubidea. Bakoitzak zerrendatik hiru izen aukeratu ditu. Boto gehien dituzten 7 hautagaiak osatuko dute Administrazio Kontseilua eta boto gehien dituen izango da Kontseiluburua.



# Denetariko aukera, gazteen eskutik

Igeldoko gazteek herriari bizitasuna eman nahi ziotela esan zutenetik ekintza mordoa antolatu dituzte eta aurrera begira ere, antolatzekotan dira.

Inauteriak ospatzea, Itsas Ekimenetan parte hartzea, hitzaldiak antolatzea, lokala garbitzea, Korrikara joateko deialdia egitea, Udaberriko Jaian laguntzea, Herri Urratserako autobusa antolatzea... Igeldoko gazteek bultzatutako zenbait ekintza dira. Otsailean jakinarazi zuten herriari alternatibak sortu eta dinamika bat martxan jartzeko asmoa zutelako, gazteei zuzenduta gauza handirik ez zegoelako, eta helburu horrekin antolatu dituzte aipatutako ekintza horiek.

Inauteriekin jarri ziren martxan eta ondoren, Itsas Ekimenak egitasmoarekin bat eginda, hau da, Euskal Herriko kostara garbitzeko ekimena, Lezkan pilatutako zaborra garbitu zuten, martxoaren 26an. Herritar guztiei zuzendutako deialdia izan zen, baina gazteek bakarrik hartu zuten parte. Hori izan zen pena bakarra, gazteen esanetan, gainerakoan oso balorazio positiboa egin baitzuten. 15 bat lagun elkartu ziren eta 20 bat poltsa bete zituzten, batez ere, poliespan, txankleta zati, lata, plastiko eta gomekin. 3 orduz aritu ziren zaborra biltzen, goiz partean. Emaizarekin gustora, maiztasun batekin errepikatzeko asmoa azaldu dute.


### AHTari buruzko hitzaldia

Horrez gain, Abiadura Handiko Trenari buruzko hitzaldia antolatu zuten apirilaren 9an. Europako zenbait herriri begira jarrita, AHTa nondik datorren azaldu zuten hitzaldian eta Euskal Herriari eragingo dituen



ondorio kaltegarrien berri eman zuten: sortuko duen kutsaduraren datuak, suntsituko duen lur kopurua, abiadura, ekarriko duen bizi eredia... AHTaren kontrako borrokaren azalpenak ere eman zituzten eta azken urteetan borroka hori kriminalizatu egin nahi izan dutela azpimarratu zuten hizlariak. Gainera, egun bat lehenago, 4 ekintzailearen aurkako epaiketa izan zen; azkenean absolbitu egin zituzten, baina beraien aurka 2 urteko kartzela zigorra eta 24.000 euroko isuna eskatzen zituzten. Ekintzaileetako bat bertan izan zen.

Hurrengo egunean, berriz, lokala garbitzen aritu ziren, eta sabaian tela asfaltikoa jartzea falta den arren, erabilera ematen hastekotan dira.



### Herri Urratsera joateko, izen ematea Txapelan

Herritik kanpora ere mugitu dira Igeldoko gazteak. Antiguotik Korrika pasatzean, bertan parte hartzeko deialdia egin zuten eta han izan ziren hainbat igeldotar apirilaren 17an, goizeko 08:30ak aldean.

Aurrera begira ere, badituzte zenbait kontu eskuartean. Esaterako, Udaberriko Jaian parte hartuko dute eta Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute Igeldotik. Izena emateko zerrenda Txapelan dago. Autobusa herritar guztientzat antolatu dute. ■

## AHT gelditzeko mila arrazoi

**40** minututan Donostia-tik Bilbora joan ahal izango omen gara, lanpostu ugari sortuko omen ditu, onura ekonomikoak izango omen ditu EAEk...eta guzti hau noski, inongo kalterik gabe.

Horixe irakur dezakegu Eusko Jaurlaritzak daukan Abiadura Handiko Trenari buruzko web orrialdean. Hau gutxi ez eta gainera ingurumenarentzat ere onuragarria izango omen da alajaina!

Horren arabera AHTk onurak besterik ez dizkigu ekarriko. Baina benetan al da dena saltzen diguten bezala? Benetan al da onuragarria AHT? Ez, ez eta ez! Trena eraikitzearen ez dugulako txikiziorik nahi, ez dugulako horrelako dirutzarik gastatu nahi, ez dugulako abiadura handian bizi nahi...eta batez ere aberastasuna txikitasunean dagoela sinesten dugulako diogu guk ezetz.

Abiadurak eta handitasunak beti ez dutelako aurrerapena ekartzen eta denon artean gelditu dezakegulako egin aurre Abiadura Handiko Trenari, egin aurre abiadura handiko bizitzari eta eraiki dezagun txikitasunean eta aniztasunean oinarritutako mundua!

*Xabi Iraola*

## Ongi etorri, "Gatza"

Goizeko 09:05 ziren Jaeneko espetxetik, 31 urte luze atzean utzi ondoren, Jose Mari Sagardui "Gatza" atera zenean. 31 bai, erraz esaten da, zer egin ote dezakegu 31 urtetan? Zenbat gauza gertatu ote daitezke? Nolakoak izango ote dira 31 urte barrote batzuen artean? Zer sufrimendu jasan behar izan ote du familiak? Denbora asko igaro da 22 urte zituenean Polizia Espainola bere etxean sartu zenetik. Orduz geroztik giltzapean eduki dute, beren familia eta lagunengandik urrun, bere herritik urrun. Baina azkenean iritsi da ordua, beste hainbat preso desio duten eguna, kalera ateratzeko eguna.

Irtzen eta segituan Goiztiri alaba gerturatu zaio eta besarkada bero batean murgildu dira. Zomozatik gerturatutako autobus bat ere hortxe zuen, merezitako ongi etorria emateko. 8 faxista inguru ere bertan zeuden amorruari eutsi ezinik. Beste albiste pozgarri bat jasotzen dute bertaratutakoek, Antton Troitiño donostiarra ere kalera, 24 urte barruan pasa ondoren. Nori ez zaio oilo ipurdia jarri edo nork ez du sentitu zirrara berezi bat gorputzean alaba eta aitaren arteko besarkada hau ikustean? Edo "Gatza"k indarrez beterik ezkerreko ukabila altxatzen duenean? Edo merezitako brindisa egiten dutenean? Edo Zornotzara iritsitakoan "Gatza askatu" kartela kentzen duenean?

Irudi hauek denak ikustean hitz bat etortzen zait burura: DUINTASUNA. 31 urte lapurtu arren ez diote irribarrea eta bizitzeko indarra kendu. Itzulerako bidean 3 kontrol eta Zornotzara iristean presentzia polizial itogarria jasan behar izan du, "ikus dezan hemen ez dela ezer aldatu". Hala ere, 1000 pertsona inguru biltzeak, ongi etorria emateko, baten bati baino gehiagori burukomin ederra emango zion. Seguruenik horregatik debekatuko zuten larunbateko omenaldia, Euskal Preso Politikokoekiko maitasuna ezabatze arren.

Goiztirik hemendik aurrera hainbeste urtetan faltan bota duen aita ikusiko du, baina Euskal Herrian Goiztiri bezalako "seme-alaba" asko daude irrikaz beren senideak besarkatzeko. Iritsiko da eguna, "Espetxea" iraganeko kontua izango dena, gure lagunak, senideak... etxera etorriko direna. Euskal Herriak merezi baitu barroterik eta sufrimendurik gabeko etorkizun bat. Helduko da berandu baino lehen, AMNISTIAREN EGUNA.

Baina egun hau ez da zerutik etorriko, ez digute oparituko, guk eskuratu beharko dugu; bitartean, amesten dugun eguna hel dadin, denoi dagokigu norabide horretan pausoak ematea, denon konpromisoa beharrezkoa izango da.

"Ez diguzue kenduko maite dugun guztia" ONGI ETORRI ETXERA!

*Aratz Urruzmendi*



**Igeldoko  
Herri  
Kontseilua**

Laguntzailea:

